

Martutene

Amaia Etxeberria- (943-210937)

Abenduan Martuteneko gazteleku berriaren lehen urtemuga beteko da. Yolanda Martin bertako arduradunarekin jardun dugu solasean.

## Zein helbururekin sortu zen Gaztelekua?

Auzo elkarteak auzoan gazteei zuzenduriko kultur azpiegiturarik ez zegoela ikusirik, Gazteria Sailera jo zuen. Lokalik ez zegoenez, gaztelekua auzo elkartearen lokalean zabaldu zen. Ondoren, ikastolarekin akordio bat egin eta gaur egungo gunea lortu genuen. Hiru dira gure helburu nagusiak: Udalaren lan martxa jarraitzea, elkarkidetzaz bultzatzea eta gaztetxoei beren ekimenak aurrera eramateko aukera eskaintzea.

**Auzoa nahikoa kaskar dabil kultur baliabideen aldetik. Gaztelekuari al dagokio gabezi hori betetzea?**

Bai. Gaztelekua gazteei



Yolanda Martinen arabera, Gaztelekua auzotar askoren erreferentzia topagunea da.

zuzendurik dagoen arren, auzotar guztiak ateak zabalik dituzte. Auzotar asko informazio bila etorri ohi da. Auzo elkarteak hemen biltzen dira. Gure erreferentzia da. Bestalde, Loiolako kultur etxarekin elkarlanean ari gara.

## Zer eskaintzen du gaztelekuak?

Hiru gunek ditugu: harrera, topagunea eta kultur sustapenerako gunea. Harreran dirulaguntza, ikastaro eta lan munduari buruzko informazioa eskaintzen dugu. Horrez gain,

etxez etxe Gazte berri argitalpena banatzen dugu auzoan. Topagunean, aisialdi jarduerak egiten dira. Kultur sustapenerako gunean, berriz, ikastaroak.

## Gaztelekua gazteei zuzendurik dagoen arren, auzotar guztiak ateak zabalik dituzte

## Zenbat gazte ibiltzen dira gaztelekuan?

Egunero, 20-25 bat gazte elkartzten dira gaztelekuan. Gazteak hona arratsaldean etortzen ohituta daude. Egun jendetsuena ostirala da.

## Martutenen gaztelania asko entzuten da. Eta gaztelekuan?

Auzoan gaztelaniaz aritzeko ohitura handia dago. Dena den, auzoko gaztetxoak ikastolan dabilta eta elebidunak dira. Hemen bietan hitz egiten da. Aurten haur berri guztiak "D" eremuan ari dira. Beraz, hainbat urte barru, euskaraz besterik ez dela hitz egingo uste dut.

## Zarataren aurkako neurriak

Ingurugiro Ministeritzak jakinarazitakoaren arabera, AHTren ibilbideak zarata akustikoa saihesteko neurri zorrotzak izan beharko lituzke Urumea bailaran. Hala ere, egitasmoa behin betiko onartu baino lehen ingurugiro ikerketa egin behar da.



25 bat gazte joaten dira egunero Gaztelekura.

## Mal de ojo Trinketen

Abenduaren 2an, larunbata, Mal de ojo taldeak "Bajo el agua de fuego" azken diskoa aurkeztuko du Trinkete tabernan, gaueko 23.00-etan.

